



ESPAINIAR ZEINU HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO OINARRIZKO HEZKUNTZA PROGRAMA

1. SARRERA

Espainiar Estatuan, luzaroan, Zeinu Hizkuntza Espainolaren (aurrerantzean ZHE) erabilera oso eremu zehatzera mugatuta egon zen: elkartegintza osatzen zuten pertsona Gorren arteko komunikaziora, alegia. Hala ere, hirurogeita hamarreko hamarkada amaieratik, honen ikaskuntza eta erabilera beste alor batzuetara barreiatuz joan da. Horregatik, ahaidetasuna, lanbidea edota interes hutsa dela eta, gutxiengo soziokultural eta linguistikoa den Gorren Komunitatearekin harremana daukaten pertsona entzuleek, ZHEko prestakuntza jasotzeko eskaria luzatu dute.

ZHEko Komunikazio ikastaroak pertsona Gorren edozein arlotan, hezkuntzan, gizarte-mailan, lan munduan,... izan zezaketen komunikatzeko beharrianari erantzuna emateko sortu ziren, baita gizarteak pertsona Gorren berezitasunak hurbilagotik ezagut zitzaten ere.

Aipatu ikastarook ZHEan komunikatzeko interesa daukaten pertsona orori zuzenduta daude eta hiru mailatan egituratuta daude (Hasierakoa(A1-A2), Erdikoa(B1) eta Goi-mailakoa(B2)). Horretarako, ikusizko eta zeinu bidezko hizkuntzaz ari garenez, ZHEko ikastaroei helburu, antolakuntza eta ezaugarri metodologiko bereziak dituzte.

2. HELBURU OROKORRAK

ZHEko irakaskuntzaren xede nagusia, ikasleek honako gaitasun hauek barneratu eta gara ditzaten laguntzea da:

- a) ZHEk duen komunikazio-balioa aintzat hartu eta hizkuntza hau erabiltzen ikasteko aukera balioetsi, baita hizkuntzarekiko, hiztunenganako eta hauen kulturarekiko adeitasunezko jarrera baikorra erakutsi ere.
- b) Egoera, gertakari, ideia eta sentimenduen gaineko mezuak ulertu, horretarako ZHEko Adituak irakatsitako eduki orokor eta zehatzak erabiliz.
- c) ZHEko Adituarekin eta ikaskideekin, klaseko ohiko jardueretan zein komunikazioa bultzatzeko espreski sortutako egoeretan ZHE erabili.
- d) Elkarrizketetan, ZHEan berezkoak diren ezaugarri gramatikalak ulertu eta jarioetasunez eta era egokian adierazi, hartzailak informazioa jasotzen duela ziurtatuz.
- e) ZHEko berezko adierazpen baliabideak ondo erabili, mezua argi eta dagokion egoerari lotuta ulertzen dela ziurtatuz.
- f) Gorren Komunitatearen kontzeptua zein horren berezko ezaugarriak ezagutu, aztertu, ulertu eta balioetsi.
- g) ZHEan mezuak egokitasunez, era autonomoan eta sormena erabiliz ulertu eta ekoiztu, eta hizkuntzaren erabileran parte hartzen duten prozesuei buruz hausnartu, baita horrek pentsamenduaren antolaketan duen eraginari buruz ere.



h) Oinarrizko errespetu eta diziplina ohiturak bereganatu eta garatu ZHEko ikasketa prozesua era egokian gauzatzeko ezinbesteko baldintza lez. Baita tolerantzia jarrera erakutsi, pertsona Gorrekiko zein Gorren Komunitatearekiko aurreiritziak gaindituz.

i) ZHE eta kultura, pertsona Gorren eskubide diren heinean, ezagutu eta balioetsi, hizkuntzarekiko errespetu eta interesa adieraziz eta, ondorioz, bere zaintza eta hobekuntza sustatuz.

j) Komunikazio egoeretan Gorren Komunitateak berezkoak dituen ohiko esaerak ezagutu eta ondo erabili.

3. LEHEN MAILAKO HEZKUNTZA-PROGRAMAKO HELBURU OROKORRAK

A1 Modulua

1. Egunerokotasunari lotutako esaera erabilienak zein bat-bateko beharrianak asetzera zuzendutako esaldi errazak ulertu eta erabili.
2. Norbere burua zein besteena aurkeztu; baita bizilekuaren, ondasunen eta ezagutzen dituen pertsonen gaineko oinarrizko informazio pertsonala eskatu eta eman ere.
3. Oinarrizko mailan harremantzeko gaitasuna lortu, betiere solaskideak astiro eta argi signatzen badu eta laguntzeko prest agertzen bada.

A2 Modulua

4. Garrantzitsuak iruditzen zaizkion esperientzia-alorrei lotutako eta maiz erabiltzen diren esaldi eta esaerak ulertzeko gai izan (norbere buruarekiko edo familiarekiko oinarrizko informazioa, erosketak, interesguneak, lanbideak, etab.).
5. Ezagunak edo ohikoak egiten zaizkion gaiei lotutako elkartruke erraz eta zuzenak eskatzen dituzten ohiko zeregin xumeak gauzatzeko adina komunikazio-gaitasuna bereganatu.
6. Norbere iraganari eta inguruari lotutako alderdiak era sinplean deskribatzen jakin, baita bat-bateko beharrianekin lotutako kontuak ere.

4. LEHEN MAILAKO HELBURU ZEHATZAK

>KONTZEPTUZKO HELBURUAK

A1 Modulua

- a) Bat-bateko beharrianak asebetu, oso ohikoak diren oinarrizko egiturak ulertuz eta erabiliz.
- b) Oinarrizko harreman sozialak izan, baldin eta solaskidea laguntzeko prest agertzen bada.
- c) ZH darabilten pertsona gorren komunitateari dagozkion ezaugarri kulturelez jabetu.



A2 Modulua

- d) Edukia aurreikus daitekeen ohiko egoeretan moldatzeko oinarrizko osagai linguistikoen jarioa menperatu (lexikoa eta egitura gramatikalak), argi eta era ulergarrian signatuz.
- e) ZH darabilen komunitatearen berezko arau sozial, kultural eta elkarrizketakoak ezagutu eta elkartruke sozial laburretan erabili.

>PROZEDURAZKO HELBURUAK

A1 Modulua

- f) Datu pertsonalei eta egoera zehatzei lotutako oinarrizko hiztegi jarioa barneratu, zeinu zuzenak erabiliz eta horien osagaiak identifikatuz.
- g) Prestatutako hainbat esakune erraz, lokailu bakun ala oinarrizkoak erabiliz zuzen ekoiztu.
- h) Argi eta geldo signatutako egunerokotasunari buruzko hiztegi eta esaldi errazak antzeman eta ulertu.
- i) Egunerokotasunean ohikoak diren jarduera eta gaien gaineko komunikazio-elkartrukeetan parte hartu, baldin eta erritmo geldoan ematen badira eta solaskideak, elkarrizketa arrakastatsua izatera begira, esaera eta esapide erraz eta argiak erabiliz laguntzen badio.

A2 Modulua

- j) Gai ezagunei buruzko deskribapen edo aurkezpen labur eta errazak egin.
- k) Galdera labur eta errazei erantzun.
- l) Eguneroko gaien buruzko informazioa eman eta eskatu.
- m) Erabateko lehentasuna duten alorrei buruzko esaldi, esaera eta hiztegia ulertu.
- n) Deskribapen eta aurkezpen labur eta errazak egin.
- o) Gai ezagunei buruzko solasaldietan, eztabaidagaia modu orokorrean antzeman.
- p) Jarduera eta gaien informazio elkartruke sinplea eta zuzena eskatzen duten ohiko eginkizun errazetan komunikatzeko gaitasunean trebatu.

5. JARRAIBIDE DIDAKTIKOAK (METODOLOGIA)

ZHEren ikaskuntzaK **komunikazio-metodoa** du ardatzat. Ildo horretan, ikasleek testuinguru bakoitzari dagozkion eduki aipagarriak igorri eta jasoz komunikatzen ikas dezakete. Horretaz gain, egunerokotasuneko egoera zehatzetan beharrezkoa den komunikazio gaitasuna barneratu dezakete.

Komunikazio metodoaren arabera, ZHEko Adituaren rola ez da klaseko ardatza edo pertsonaia garrantzitsuena izatearena, ikasleen gidaritzat aritzea baino. Hortaz, ikasleek klasean zehar rol parte hartzaileagoa hartzen dute. Era berean, ikastaroetan gramatika erraz ulertzeko moduan azaltzen da, ikaslearengan jakin-mina pizteko asmoz.

Hau guztia lortzera bidean, klasean jarduera anitz proposatzen dira: antzerkitxoak, elkarrizketak, rol-jokoak, binakako lanak, lanak talde txikitan, etab., bitzta errealistik hartutako testuinguruak





proposatuz eta ohiko eduki funtzionalak adieraz ditzaten eskatuz, hala nola: informazioa eman ala eskatu, tentua eta sentimenduak azalerratu, ideiak bota, konbentzitu,...

6. LEHEN MAILAKO EBALUAKETA IRIZPIDEAK

A1 Modulua

- >Aurretiaz ikasitako hainbat egitura gramatikal eta sintaktiko erraz hala-hola menperatzen du.
- >ZH ama-hizkuntzatzat duten eta ikaslearen hizkuntza-talde berdineko hizlariekin hitz egitera ohituak dauden solaskideek, ahaleginak eginez, ikasleak ikasitako zeinu eta esaldi-jario mugatua uler dezakete.
- >Gizarte hartu-eman oinarritzkoak egiteko gai da, agurretarako eta aurkezpenetarako ezarritako adegile erraz eta ohikoenak erabiliz. Honako esapideak erabiltzen ditu: mesedez, eskerrik asko, barkatu...
- >Hitzak edo hitz-multzoak oinarritzko lokailuak erabiliz lotzen ditu, espazioa kasu.
- >Aurretiaz prestatutako oso esaldi labur eta bakunak erabiliz moldatzen da eta geldialdi asko egiten ditu esaerak bilatu, ezohikoagoak zaizkion zeinuak egiteko eta komunikazioa aurrera ateratzeko.
- >Gorrieria eta pertsona gor kontzeptuan historikoki eragina izan duten ikuspuntu nagusiak ezagutzen ditu.
- >Gorren Identitatearekin bat datozen alderdi nagusiak ezagutzen ditu.
- >Zeinu Hizkuntzaren egituraren oinarritzat hartzen den ikusizko pertzepziorako gaitasuna ulertu eta barneratu du.

A2 Modulua

- >Hainbat egitura bakun zuzen erabiltzen du baina aldiro-aldiro akatsak izaten ditu; esaterako, aditzenborak nahastu eta komuntadura ahaztu ohi du. Hala ere, esan nahi duena argi geratzen da.
- >Orokorrean argi eta ulertzeko moduan signatzen du, nahiz eta ama-hizkuntza ahozkoa duela bistan geratu eta solaskideek aldiro errepikatzeko eskatu behar dioten.
- >Hizkuntzaren oinarritzko funtzioak betetzen daki, adibidez, informazioa trukatu eta eskatu; era berean, iritziak eta jarrerak modu errazean adierazten daki.
- >Harreman sozialetan aise baina eraginkortasunez moldatzen da, esapide erraz eta ohikoenak erabiliz eta oinarritzko ereduak jarraituz.
- >Elkartruke sozial laburretan moldatzen da, agur eta trataerarako ohiko esamoldeak erabiliz. Gonbidapen eta proposamenei erantzuten daki, baita barkamena eskatzen eta jasotzen ere...
- >Esaldi bakunak lotzeko lokailu ohikoenez baliatzen da istorio bat kontatzeko edota elementu-sorta erraza banan-banan deskribatzeko.
- >Mintzaldi laburretan ulertu diezaioten lortzen du, geldiuneak, hasierako zalantzak eta birformulazioa bistan geratzen diren arren.





Euskal Gorrak

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa

>Elkartruke laburretan ondo moldatzeko adina erraztasuna dauka ohiko gaiei buruzko esaldiak eginez,



Euskal Gorrak

Programación Nivel I

CURSOS DE LENGUA DE SIGNOS



Euskal Gorrak

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa



Euskal Gorrak

Programación Nivel I

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

>Pertsona gorren elkarte-bizitzaren testuingurua eta funtzionamendua ezagutzen du.

7. IKASLEEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK:

>IKASLEEN ESKUBIDEAK:

a) Irakaskuntza eta parte-hartzeari buruz:

a.1. Hezkuntza-programan ezarritako eta irakasle-taldeak adostutako egitarauaren arabera hezkuntza jaso.

a.2. Federazioek edota Elkarateek antolatutako hezkuntza-jarduera eta ekimen osagarrietan parte hartu.

a.3. Federazioa edota Elkarateetako azpiegitura eta zerbitzuak erabili, beti ere horietako bakoitzak dituen helburuen arabera.

b) Ebaluaketari dagokionez:

b.1. Ikasturtean zehar maila bakoitzerako egiten diren ebaluaketa-proba guztietan parte hartu.

b.2. Ikasleek, beraien garapena objektibotasun osoz ebaluatua izateko eskubidea daukate.

b.3. ZHEko Adituek, barneratutako edukiak ebaluatzeko kontutan hartuko diren irizpide orokorrak aldeztetik helarazi beharko dituzte.

b.4. ZHEko Adituek ikasleekin komunikazio oparoa izango dute, ikasleek ikaskuntza-prozesuari ateratako atarramenduari eta egindako garapenari dagokionez.

b.5. Ikasleek, ikasturte amaieran hartutako erabakien eta jarritako kalifikazioaren kontrako erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute. Erreklamazio hori bi arrazoitan oinarritu ahal izango da: batetik, ikasleari jarritako proba, maila ezberdinetan ezarritako helburu edo edukiei egokituta ez egotean ala, bestetik, ezarritako irizpideak txarto erabiltzean. Horretarako, idatzizko erreklamazioa egin beharko dute, federazioak daukan eredia erabiliz.

c) Aukera berdintasunari dagokionez:

c.1. Ikasle guztiek irakaskuntza maila ezberdinetan parte hartzeko aukera berdina izateko eskubidea dute.

c.2. Aukera berdintasuna honako irizpideei jarraituz sustatuko da:

>Jaiotze, arraza, sexu, erlijio ala irizki arrazoiak direla medio edota banakako zein gizarteko bestelako baldintza edo egoerarengatik bazterkeria eza.

>Benetako aukera berdintasun eraginkorra ziurtatuko duten baliabide gehigarrien ezarpena.

c.3. Federazioak, ikasleen bazterkeria saihestuko duten ekimenak gauzatu ditu. Ildo horretan, arreta berezia jarriko du bizikidetzarako arauak errespetatu eta ikasleen integrazio osoa ziurtatzeko ekintza positiboetarako egitasmoak ezar daitezela.

>IKASLEEN BETEBEHARRAK:



a) Bertaratzea eta ziurtagiriei dagokienez:

a.1. Izena eman duten ikastaroari dagozkion eskoletan zein proposatutako gainontzeko hezkuntza-jardueretan parte hartu (Gaitasun ziurtagiria jasotzeko, gutxienez, ikasturteko orduen %80an parte hartu eta azken proba gainditu beharko dute. Osterantzean, Bertaratze ziurtagiria jasoko dute). Ezinbestekoa da eskoletara maiz kale ez egitea, gainontzeko ikaskideen zein ikaslearen ikasketa-prozesua ez oztopatzeke. Era berean, egindako hutsegiteak egiaztagiri bidez arrazoitu beharko dira.

a.2. Ikasleak eskoletara orduan heltzea gomendatzen dugu; hortaz, ikaslea eskolara 15 minutu baino gehiagoko atzerapenez heltzekotan, ezin izango da ikasgelan sartu eta atsedendia amaitu arte itxaron beharko du ikasgelan sartu ahal izateko.

a.3. Ikasleak ikastaroan baja eman nahi izatekotan, ikastaroaren ZHEko Koordinatzaileari idatziz jakinarazi beharko lioke.

a.4. Ikaskideen arreta ez oztopatze aldera, ikasleak ezin izango dira ikasgelatik irten harik eta eskola amaitzen ez den arte. Arrazoitutako egoeretan salbuespenak egin ahal izango dira, baldin eta ZHEko Adituak bere onespena ematen badu.

a.5. Jarduerak gauzatzeko onartutako ordutegiak bete eta errespetatu.

a.6. Ikastaroa antolatzen duen Erakundeak ezarritako ordainketak egin ez duten ikasleei zuzenean baja emango zaie.

b) Ikasgelan erakutsi beharreko jarrerrei dagokienez:

b.1. Debekatuta dago eskoletan zehar ahotsa erabiltzea.

b.2. Idazteari dagokionez, eduki teorikoak asko direnean baino ez da baimenik emango. Idazteko askatasuna emateak ZHEren ikasketa-prozesuari kalte egingo lioke eta hizkuntza honek ezinbestean eskatzen duen begi-arreta galduko litzateke.



ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa



8.ARLOZ ARLOKO GAIEN ZERRENDA

HEZKUNTZA-EDUKIAK - HASTAPEN MAILA (A1 + A2)			
ALDERDIA	Osagaia	A1	A2
1. GRAMATIKALA	1.1. Substantiboa	<ul style="list-style-type: none"> >Izen propioak: inguru hurbileko antroponimoak eta toponimoak (zehatzak eta daktilogikoak). >Generoa: identifikazioa eta oinarritzko heteronimoak. >Kopurua. 	<ul style="list-style-type: none"> >Izenaren malgutasuna. >Izen-sintagma: substantiboak perpausean duen kokapena. >Kuantifikazioa: plurala introflexio eta suplezio bidez. >Kopurua: pluralari lotutako errepikapena eta aurpegi-adierazpena. >Sailkatze-izenak.
	1.2. Izenondoa	<ul style="list-style-type: none"> >Graduak. >Genero eta kopuruaren komuntadura: eza. 	<ul style="list-style-type: none"> >Graduak. >Izenondoak izen-sintagman duen kokapena. >Izenondo deskribatzaile gisa funtzionatzen duten eredu klasifikatuak.
	1.3. Deiktikoak	<ul style="list-style-type: none"> >Formak. >Deiktikoak izen-sintagman duen kokapena. 	<ul style="list-style-type: none"> >Denborazko deiktikoa. >Deiktikoen komuntadura espazio gramatikalean. >Erakusle eta pertsona izenordainei lotutako morfemak.
	1.4. Edutezkoak	<ul style="list-style-type: none"> >Formak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Edukierazkoaren kokapena sintagma barruan.



Programación Nivel I

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa



	1.5. Zenbatzaileak	<ul style="list-style-type: none"> >Zenbakizkoak: 1-20 eta hamarrekoak. >Gutxi, asko, nahiko, batzuk. 	<ul style="list-style-type: none"> >Zenbakizkoak: ehunekoak, milakoak y milioiak. >Ordinalak. >Unibertsalak eta ez unibertsalak: dena, gutxi, ezer ez, beste bat, inor ere ez, gehiengo. >Izen-sintagman duen kokapena. >Zenbatzaileen aurpegi-adierazpena.
	1.6. Galderazko izenordainak	<ul style="list-style-type: none"> >Galderazko izenordainak: zer, nor, zein, non, noiz (iragana), zenbat, zergatik. >Kokapena. >Galderazkoen aurpegi-adierazpena. 	<ul style="list-style-type: none"> >Galderazko izenordainak: zelan, noiz (etorkizuna). >Kokapena.
	1.7. Aditza	<ul style="list-style-type: none"> >Aditz-denboraren forma orokorrak: orainaldia, iragana, iragan burutua. >Moduzko aditz laguntzaileak: behar izan, ahal izan, nahi izan. 	<ul style="list-style-type: none"> >Aspektu burutua: eskuzkoa ez den osagaia. >Aspektu burutugabea: mugimendua eta gauzatzea; eskuzkoa ez den osagaia. >Norabidezko aditzak, atzeranorabidezkoak eta elkarkariak. >Oinarritzko aditz eratorriak.
	1.8. Perpausa	<ul style="list-style-type: none"> >Elementuen ordena: SOA, geldiuneak. >Adierazpen-perpauzak eta kopulatiboak, iragankor eta iragangaitzak. >Perpau koordinatu kopulatiboak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Elementuen ordena: SOA, geldiuneak. >Komunztadura: espazioa eta begiradaren erabilera. >Perpau hautakariak, aurkariak. >Menpeko izen-perpauzak. >Kausazko eta baldintzazko perpauzak. >Aurpegi adierazpena harridurazko perpauzetan.



Programación Nivel I

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa



	1.9. Lokailuak	<ul style="list-style-type: none"> >Espazioa. >Geldiuneak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Adibidea (baldintzazko balio barik) eta <i>arrazoia</i> lokailu gisa. >Espazioa, begirada eta aurpegi-adierazpena lokailu gisa. >Preposizioak: formak, erabilera eta kokapena.
	1.10. Aditzondoak	<ul style="list-style-type: none"> >Denborazkoak: gaur, atzo, bihar, orain, -ero, batzuetan. >Lekuzkoak: hurbil, urrun, goian, behean (forma klasifikatuak), aurrean, atzean. >Moduzkoak: ondo, txarto, hala-holako, erraza, zaila, astiro, arin, geldo. >Baiezkoak: bai (zeinu eta buru-mugimenduzko EEO). >Ezezkoak: ez (zeinu eta buru-mugimenduzko EEO). >Kokapena perpausean. 	<ul style="list-style-type: none"> >Lekuzkoak: barruan, kanpoan, aurrez-aurre (forma klasifikatuak) eta perpausean duten kokapena. >Denbora erlatibozkoak: aurretik, ondoren, aurreko astean, sekula ez, datorren urtean, beti, askotan eta perpausean duten kokapena. >Moduzkoak: okerrago, hobeto. >Baiezkoak: ere bai. >Ezezkoak: ezta ere, ez. >Inklusiozkoak: baita...ere. >Moduari eta zalantzari lotutako aurpegi-adierazpena.
	1.11. Klasifikadoreak	<ul style="list-style-type: none"> >Klasifikador kontzeptua. >Erabilerak >Klasifikador motak. 	



Programación Nivel I

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa



	1.12. Fonologia	<ul style="list-style-type: none"> >Zeinu kontzeptua. >Parametro formatiboak: konfigurazioa, lekua, mugimendua, orientazioa eta eskuzkoak ez diren osagaiak. >Daktilologia. >Silaba ZHEN: silaba bakarreko zeinuak, silaba bikoak eta konplexuak. >Esku bakarreko zeinuak eta bi eskutakoak. >Erritmoa, geldineak eta denbora. 	
2. LEXIKOA	2.1. Norbanakoa eta harreman pertsonalak	<ul style="list-style-type: none"> >Identifikazioa. >Buruko atalak. >Ezaugarriak. >Eguneroko ekintzak. >Lekualdatze-ekintzak. >Izaera. >Objektu pertsonalak. >Sentimenduak eta pertzepzioak. >Familia. >Harremanak. >Bestelakoak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Identifikazioa. >Gorputz-atalak. >Ezaugarriak. >Eguneroko ekintzak. >Lekualdatze-ekintzak. >Izaera. >Objektu pertsonalak. >Sentimenduak eta pertzepzioak. >Familia. >Bestelakoak.
	2.2. Hezkuntza eta lana	<ul style="list-style-type: none"> >Lekuak. >Objektuak eta kontzeptuak. >Pertsonak. >Ekintzak. >Ikasketak eta titulazioak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Lekuak. >Objektuak eta kontzeptuak. >Pertsonak. >Ekintzak. >Ikasketak eta titulazioak.



Programación Nivel I

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa



	2.3. Aisialdia eta bidaiak	<ul style="list-style-type: none"> >Ekintzak eta zaletasunak. >Lekuak. >Objektuak. >Garraiobideak. >Garraio-sarea. >Ospakizunak eta uda-sasoiak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Ekintzak eta zaletasunak. >Lekuak. >Garraiobideak. >Garraio-sarea.
	2.4. Etxea eta etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> >Lekuak eta atalak. >Baldintzak. >Objektuak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Lekuak eta atalak. >Baldintzak. >Ekintzak. >Pertsona. >Objektuak.
	2.5. Erosketak eta jarduera ekonomikoak	<ul style="list-style-type: none"> >Lekuak, objektuak eta jarduerak. >Arropa eta oinetakoak. >Jatekoa. >Edaria. >Bestelakoak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Lekuak, objektuak eta jarduerak. >Arropa eta oinetakoak. >Jatekoa. >Edaria. >Bestelakoak.
	2.6. Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> >Sintomak. >Lanbideak. >Lekuak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Sintomak eta ondoezak. >Lekuak. >Bestelakoak.
	2.7. Zientzia eta teknologia	<ul style="list-style-type: none"> >Informatika. >Bestelako teknologiak. 	<ul style="list-style-type: none"> >Informatika. >Bestelako teknologiak. >Bestelakoak.



Programación Nivel I

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa



	2.8. Antolaketa politikoa eta soziala	<ul style="list-style-type: none">>Inguruko hiri eta herriak.>Autonomia Erkidegoa.>Agintariak.>Bestelakoak.	<ul style="list-style-type: none">>Estatuko hiri garrantzitsuak.>Autonomia Erkidegoak.>Hiri Autonomoak: <i>Ceuta, Melilla</i>.>EBeko herrialdeak eta munduko hainbat herrialde garrantzitsu.>Gobernua eta agintariak:>Bestelakoak.
	2.9. Unibertsoa eta geografia fisikoa	<ul style="list-style-type: none">>Landareak eta animaliak.>Koloreak.>Fenomeno atmosferikoak.>Lekuak.>Urtarok.>Orientazioa.>Denbora eta egutegia.>Tenperatura.>Pisua.>Bestelakoak.	<ul style="list-style-type: none">>Landareak eta animaliak.>Koloreak.>Fenomeno metereologikoak.>Lekuak.>Orientazioa: <i>iparraldea, hegoaldea, ekialdea, mendebaldea</i>.>Materia.>Bisibilitatea.>Bestelakoak.



Programación Nivel I

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa



3. SOZOKULTURALA	Eduki orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> >Norbere burua identifikatzea: zeinu pertsonala. >Pertsona gor kontzeptua eta aniztasuna: ezgaitasuna eta hizkuntza-gutxiengoa, gizarte-aniztasuna. >Zeinu Hizkuntza Espainolaren hizkuntza-aniztasuna. >Deitzeko moduak: indibidualak eta solaskidearekiko hurbilak. >Solaskideen arteko begi-kontaktuaren garrantzia eta espazio-baldintzak. >Oinarrizko gizarte-arauak. >Zeinu hizkuntzaren legezko aitortpena. 	<ul style="list-style-type: none"> >Deitzeko moduak: kolektiboak eta solaskideekiko urrunekoak. >Identitate kolektiboa eta pertsona gorren elkarbizitza. >Gorren komunitate eta kulturarekiko hurbilketa: arte eta kultura adierazpenak. >Gorren komunitatearen ohiko ospakizunak. >Gorren komunitatearen historiaren pertsona eta gertaera garrantzitsuenak. >Irisgarritasun unibertsala: zeinu hizkuntzako interpretearen papera eta komunikaziorako oinarrizko teknologiak.
4. PRAGMATIKOA	4.1. Informazioa eskatu	<ul style="list-style-type: none"> >Informazioa eskatu. 	<ul style="list-style-type: none"> >Informazioa eskatu. >Nork laguntzen duen galdetu. >Norena den galdetu (jabegoa).
	4.2. Iritziak, jarrerak eta ezagutzak adierazi	<ul style="list-style-type: none"> >Iritzia eman. >Balorazioa eskatu. >Baloratu. >Oniritzia eta gaitzespena adierazi. >Adostasuna ala ezadostasuna adierazi. >Aukera adierazi. >Ezagutza edo abilezia erakutsi edo galdetu. 	<ul style="list-style-type: none"> >Iritzia eskatu. >Balorazioa eskatu. >Baloratu. >Ados dagoen ala ez galdetu. >Adostasuna ala ezadostasuna adierazi. >Ezagutza edo abilezia erakutsi. >Eszeptizismoa erakutsi.



Programacion Nivel I

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa



Euskal Gorra

			<ul style="list-style-type: none"> >Ziurtasuna ala ziurtasun eza adierazi. >Beharra/beharrizana edo behar/beharrizanak eza adierazi. >Zerbait gogoratzen den ala ahaztu den galdetu.
	4.3. Gustuak, nahiak eta sentimenduak adierazi	<ul style="list-style-type: none"> >Gustuak adierazi. >Nahiak adierazi. >Lehentasuna adierazi. >Aldarteagatik galdetu. 	<ul style="list-style-type: none"> >Gustu eta interesengatik galdetu. >Gustuak eta interesak adierazi. >Nazka/Gorrotoa adierazi. >Lehentasunak adierazi edo galdetu. >Nahiak galdetu. >Plazerra edo dibertsioa adierazi. >Lasaitua adierazi. >Afektua adierazi. >Sentipen fisikoak adierazi.
	4.4. Solaskidearengan eragin	<ul style="list-style-type: none"> >Agindu edo jarraibideak eman. >Objektua edo laguntza leun eskatu. >Agindu, eskaera edo erregu bat irmo ukatu. >Eragozpen gabeko baimena eman. >Baimenik ez eman arintzailea erabiliz. >Eskaini eta gonbidatu. >Proposamen, eskaintza edo gonbidapena zabal-zabal hartu. 	<ul style="list-style-type: none"> >Agindua edo jarraibidea era zuzenean eman. >Agindua edo jarraibidea arintzailea erabiliz eman. >Objektuak leun eskatu. >Laguntza zeharka eskatu. >Agindu, eskaera edo erregu bati erantzun. >Agindu, eskaera edo erregu bati ezezko biribila eman. >Baimena eskatu. >Baimena eragozpen barik eman.

Programación Nivel I

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**



Euskal Gorra

ZEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

I. Mailako Programazioa



		<ul style="list-style-type: none"> >Proposamen, eskaintza edo gonbidapena errefusatu. 	<ul style="list-style-type: none"> >Proposatu eta iradoki. >Gonbidatu. >Proposamena edo gonbitea zabal onartu. >Aholkatu. >Ohartarazi. >Zerbait egiteko norbere burua eskaini.
	4.5. Sozialki harremandu	<ul style="list-style-type: none"> >Agurtu. >Norbere burua aurkeztu. >Norbait aurkeztu. >Aurkezpen bati erantzun. >Barkamena eskatu. >Barkamena onartu. >Eskertu. >Esker onari erantzun. >Zoriondu. >Agurtu. 	<ul style="list-style-type: none"> >Norbaitengana zuzendu. >Norbaiti ongietorria egin. >Barkamena eskatu. >Barkamena onartu. >Zoriondu. >Esker onari erantzun. >Desio onak adierazi. >Agurtu.
	4.6. Berbaldiaren egitura, eraikuntza eta interpretazioa	<ul style="list-style-type: none"> >Komunikazioari ekin. >Kontakizuna jakin-minez jarraitzen dugula adierazi. >Itxiera proposatu. 	<ul style="list-style-type: none"> >Pertsona edo gauza batengatik galdetu. >Itxaroteko eskatu. >Kontakizuna jakin-minez jarraitzen dugula adierazi.



Programación Nivel I

**CURSOS
DE LENGUA DE SIGNOS**